

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Ermuko Udala****Gizarte-Politikako bi lanpostu Tekniko lehiaketa-oposizio libre bidez betetzeko eta sartzeko hautaprobeen deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak.**

Alkatek, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak indarrez, honakoa,

ERABAKI DU:

Gizarte-politikako bi lanpostu tekniko oposizio-lehiaketa libre bidez sartzeko eta betetzeko hautaketa-proben deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak, 2018ko ekitaldiko lan-eskaintza publikoari dagozkionak eta finkatze-planean sartuta daudenak onartzea

Lehenengoa. — Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da, txanda irekiko lehiaketa-oposizio sistemaren bidez, gizarte-politiketako teknikarien bi plaza jabetzan betetzea. Plaza horiek 2018ko Lan Eskaintza Publikoan sartzen dira. Eskaintza hori Alkatetzaren 1802/2018 Ebazpenaren bidez onartu zen, eta 2018ko ekainaren 28ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (124. zenbakia). Honako ezaugarri hauek ditu:

- Taldea: A, Azpitaldea: A2, Eskala: Administrazio Berezia, Azpieskala: teknikoa.
- Izena: Gizarte politiketako teknikariak. 513 eta 514 kodea.
- Lanpostu hutsen kopurua: bi.
- Titulua: Diplomatura, Lizentziatura edo Gradua: Psikologia, Pedagogia, Psikopedagogia, Gizarte Hezkuntza, Gizarte Lana, Zientzia Politikoak, Zuzenbidea, Soziologia, Soziologia Aplikatua, Soziologia, Zuzenbidea/Bachelor of Laws, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Enpresen Administrazioa, Business Administrazioa, Enpresen Zuzendaritza, Enpresen Zuzendaritza eta Administrazioa, Fiskaltatea eta Administrazio Publikoa, BBA, Lan Zientziak, Lan Zientziak eta Giza Baliabideak, Lan Zientziak, Lan Harremanak eta Giza Baliabideak.
- Hizkuntza-eskakizuna: C1.
- Derrigortasun data: 2021eko abenduaren 31.
- Lanpostu-mailako osagarria: 22.
- Berariazko osagarria: 15.998,22 euro.
- Lanpostuak betetzeko modua: lehiaketa.

Bigarrena. — Plazaren eginkizunak

Hautatutako izangaiak Ermuko Udaleko Hezkuntza, Kultura eta Gazteria Sailean, Hezkuntza Zerbitzuan eta Oinarrizko Lanbide Heziketan lan egingo du, eta azpieskalaren berezko eginkizun orokorrean gain, maila eta kategoriaren barruan agintzen zaizkion eginkizunak ere beteko ditu.

Izangaientzako informazio gisa balio dezan, eta hautaketa-prozesua ebaluatzeko irizpideen oinarri gisa, deialdi honen xede diren plazen eginkizunak honako hauek izango dira:

- A) Esku-hartze komunitarioarekin lotutako eginkizunak.
 - Komunitate mailako gizarte-politiken diseinua eta garapena koordinatzea.
 - Udalerriko gizarte-beharrak identifikatzea.
 - Planak eta proiektuak antzemandako beharren arabera garatzea.
 - Estrategia abian jartzeko finantzaketa eta lankidetzak publiko-pribatuak bilatzea.



- Sinergiak sustatzea, udalerriko gizarte-eragileen eta udal-erakundearen bera-
ren arteko koordinazioa eta parte-hartze aktiboa bultzatzeko.
 - Herritarren parte-hartzearen eta antolaketaren arloko politikak zehazten dituz-
ten estrategia eta tresnen kudeaketan parte hartzea, politika eta tresna horiek
udal-plangintza estrategikoarekin lerrokatuta daudenean.
 - Aukera-berdintasuna lortzeko jarduerak eta politikak ezartzea.
 - Haurren eta gazteen partaidetzako prozesu berritzaileak kudeatzea, diseina-
tzea eta ezartzea.
 - Hiri Hezitzailearen udal-estrategia garatzea.
 - Udalerriko haurren eta gazteen egoeraren diagnostikoa diseinatzea eta egitea.
 - Udal Haurtzaroaren Plana diseinatu, gauzatu, inplementatu eta ebaluatzea.
 - Autonomia-erkidegoko, estatuko eta nazioarteko sare sozial eta/edo komuni-
tarioetan aktiboki parte hartzea.
 - Programarekin lotutako aurrekontua diseinatzea eta kudeatzea.
 - Proiektuekin lotutako zerbitzuei dagozkien kontratazioak izapidetzea.
 - Gizarte-proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egitea
- B) Oinarrizko Lanbide Heziketako irakaskuntzaren gaitasunarekin lotutako eginki-
zunak.
- Konpetentzia eskuordetzearen esparruan gaitasun sozialak, pertsonalak eta
profesionalak garatzeko programak eta/edo jarduerak diseinatu, koordinatu
eta sustatzea.
 - Udal administrazioarekin zein Eusko Jaurlaritzarekin Oinarrizko Lanbide Hezi-
ketako programak kudeatzea.
 - Gizarte- eta hezkuntza-proiektu berriak ezartzea dagozkien AKDen esparruan.
 - Programa horietan hezkuntza-komunitatea babesteko eta aberasteko ekin-
tzak sustatzea.
 - Programari dagokion aurrekontua kudeatzea.
 - Eremuko enpresa-sarearekin lankidetzaren sare bat ezartzea eta mantentzea,
Programetako Lantokiko Prestakuntzen kudeaketa errazteko.
 - Eskualdeko udal-, osasun-, komunitate- eta esku-hartze psikosozialeko bali-
a-bideekin koordinatzeko esparrua ezartzea.

Ezagutzak

- Proiektuen diseinua eta kudeaketa.
- Udal-politika eta -kudeaketa.
- Lidergoa.
- Oratoria.
- Parte-hartzea.
- Baztertuak izateko arriskuan dauden kolektiboak.
- Haurrak eta gazteak.
- AICEren proiektuetako politika estrategikoak.
- Parte-hartze komunitarioko prozesuen sareak.
- Lanbide Heziketako programen antolaketa eta kudeaketa administratiboa eta pe-
dagogikoa.
- Hezkuntza-sistema arautua.
- Sare komunitarioekin sareak sortzea.
- Antolamendu-balioak.
- Udal-estrategia.

**Eskumenak**

- Lidergo-trebetasunak.
- Talde-lana.
- Komunikazioa.
- Ikuspegi komunitarioa.
- Erakundearekiko konpromisoa.
- Ikuspegi estrategikoa.
- Berrikuntza.

Hirugarrena. — Hautagaiek bete behar dituzten baldintzak edo betekizunak

Hautaketa-probetan parte hartzeko, hau bete beharko da:

- a) Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako tratatuak aplikatzearen ondorioz langileen zirkulazio askea onartuta daukan estatu batekoa izatea.
- b) Era berean, espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu kideetako herritarren ezkontideek parte hartu ahalko dute, baldin eta egitez bananduta ez badaude, eta haien ondorengoez edo haien ezkontidearen ondorengoez bai, hogeita bat urte baino gutxiago badituzte edo, zaharragoak izanez gero, haien kontura bizi badira.
- c) Gutxienez 16 urte izatea eta nahitaezko erretiroko gehienezko adina ez gainditzea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.
- d) Diplomatura, lizentziatura edo gradu-titulua edo goi-mailako titulua lortzeko eskubideak ordainduta izatea: Psikologia, Pedagogia, Psikopedagogia, Gizarte Hezkuntza, Gizarte Lana, Politika Zientziak, Soziologia, Soziologia Aplikatua, Soziologia, Zuzenbidea/Bachelor of Laws, Enpresen Administrazioa, Enpresen Administrazioa/Business Administrazioa, Enpresen Zuzendaritza eta Zuzenbidea. Lan Zientziak eta Giza Baliabideak, Lan Zientziak, Lan Harremanak eta Baliabideak
Atzerrian lortutako tituluak dituzten izangaiek dagokion baliozkotzea edo, hala badagokio, tituluaren homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria dutela egiaztatu beharko dute.
- e) Merezimendu eta betekizun guztiak deialdiaren oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu diren data erreferentziatzat hartuta balioetsiko dira.
- f) Zereginak betetzeko behar den gaitasun funtzionala edukitzea. Bete nahi den plazari dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzeko behar den gaitasun funtzionala eta psikofisikoa edukitzea eta beren elbarritasun-maila lanpostuaren betebeharrak eta eginkizunak betetzeko oztopo ez dela egiaztatzea. Hori Udalaren Osasun Zerbitzuek egiaztatuko dute Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat, lan arriskuen pre- bentsioari buruz indarrean dauden arauak aintzat hartuz, lanaren ondoriozko arriskuetatik babesteko lanpostuan egokitzenak egin behar badira ere.
- g) Ez egotea, diziplina espediente bat dela medio, edozein herri administrazioen edo autonomia erkidegoetako konstituzio edo estatutu organoen zerbitzutik bereizita eta ez izatea, ebazpen administratibo edo judizialen bidez, enplegu edo kargu publikoak betetzeko desgaitasun absoluturik edo berezirik, ez funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, ez eta, langile lan-kontratadunen kasuan, bereizi edo desgaitu aurretik betetzen zituztenen antzeko funtzioak betetzeko ere. Beste estatu bateko herritarra bada, desgaituta edo horren pareko egoera batean ez egotea eta haren estatuan baldintza beretan enplegu publikora iristeko eragozpen den diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez izatea.



- h) Ez egotea ezintasun eta bateraezintasuneko legezko kausaren batean, abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, herri administrazioen zerbitzurako bateraezintasuna arautzen duenak, xedatutakoaren arabera.

Aurreko betekizun guztiak, hautaketa prozesuan zehar, eta izendatu arte, eduki beharko dira.

Laugarrena. — Eskaerak aurkezteko modua eta epea

Dagozkion sarbide probetan, non hautagaiek eskuratu nahi duten plazarako oinarri orokor hauetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela frogatuko duten, parte hartzeko eskaerak Ermua Hiriko Udaleko alkate-udalburuari zuzenduko zaizkio, eredu ofizial eta normalizatuarekin bat etorritik (oinarri hauei III. eranskin gisa erantsi zaiena) eta udal honetako sarrera erregistroan aurkeztuko dira hogeita (20) egun balioduneko epean, deialdiaren iragarkia Estatuko Buletin Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatuta.

Eskabideak urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan adierazitako herri administrazioen erregistroetan ere aurkeztu ahalko dira. Ermuko Udaleko alkate-udalburuari zuzenduko zaizkio eta kasuan kasuko funtzionarioak eskabideak aurkezteko epean data eta zigilua jarrita egon beharko dute. Honako betekizunak bete beharko dituzte baztertuak ez izateko:

- Hautagaiek oinarri hauen hirugarren atalean eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, betiere deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu den datari dagozkionak.
- Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:
 - NANaren fotokopia, pasaportearena edo nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen dituen agiriarena, hautagaiak Europar Batasuneko estatu batekoak badira.
 - Deialdian parte hartzeko eskatzen den titularen fotokopia.
- Halaber, lehiaketa-aldian balioetsi beharreko merezimenduen inguruko datuak eman beharko dituzte. Eskabidean zehazten ez direnak ez dira balioetsiko. Lehiaketa-aldian balioetsi beharreko merezimenduak agiri bidez egiaztatuko dira, zazpigarren oinarrian adierazitako moduan eta epeetan. Herri administrazioen jarduketaren eraginkortasun eta efizientziaren printzipioa dela-eta, oposizio-aldia lehiaketa-aldia baino lehen egingo da eta oposizio-aldia gainditu dutenei soilik eskatuko zaie merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa, balioesteko asmoz. Ezingo da balioetsi eskabideak aurkezteko epean alegatutakoez bestelako merezimendurik, ezta epe horren barruan alegatu arren oinarri hauetan xedatutakoaz bestelako une batean justifikatutakorik ere.

Eskaera aurkezteak deialdian eskatzen diren baldintzak eta betekizunak onartzeko konpromisoa hartu dela esan nahi du. Hautagaien batek datu faltsuak eman ez gero, hautaketa-prozesutik kanpora geratuko da.

- Azterketa egiteko tasa ordaindu izanaren ziurtagiria: 15,00 euro.

Kontu zenbakia: ES43 2095 0040 6732 0031 0204.

Tasa ordaintzerakoan, ezinbestekoa da honakoa jartzea TPS+NAN zenbakia.

Adibidez: SMA15622321A.

Bosgarrena. — Hautagaien onarpena

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, alkatetzak ebazpena emango du, onartutakoan eta baztertutakoan behin-behineko zerrenda onartutzat joko du eta arrazoiak adieraziko ditu. Halaber, akatsak zuzentzeko epea emango du; 2015/39 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 68. artikuluan ezartzen duenaren arabera, hamar egun baliodun izango dira. Ebazpen hau udalaren web orrian (www.ermua.es) argitaratuko da, baita Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ere, eta azken hori erabakigarria izango da aurkaratzeko edo errekurtsioak aurkezteko epeetarako.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikoa bihurtuko da automatikoki.



Halakorik egonez gero, ezetsi edo baietsi egingo dira, hala badagokio, beste ebazpen batean. Horren bidez, onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda onartuko da, eta udalaren web orrian (www.ermua.es) eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Ebazpen horretan, datu hauek emango dira: epaimahai kalifikatzaileen osaera eta lehen ariketa egiteko eguna, ordua eta tokia.

Onartutakoaren eta baztertutakoaren behin betiko ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahalko da txandaren arabera dagokion Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, onartutakoaren eta baztertutakoaren zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatuta. Nolanahi ere, bi-dezkatat jotzen den beste edozein errekurtsio ere jarri ahalko da.

Seigarrena.— Epaimahai kalifikatzailea

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren Legearen testu bateratua onartzen duenak, 60. artikuluan ezarritakoaren arabera, hautaketa-organismoak kide anitzekoak izango dira eta haien osaerak kideen inpartzialtasunaren eta profesionaltasunaren printzipioekin bat etorri beharko du. Halaber, emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna lortzen saiatuko dira, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 20. artikuluan xedatzen duenari jarraituz.

Epaimahaia ondorengoek osatuko dute:

— Presidentea:

- A1 edo A2 azpitaldeetako Ermuko Udaleko zuzendari edo teknikari funtzionarioak.

— Kideak:

- A1 edo A2 azpitaldeetako Ermuko Udaleko 3 teknikari funtzionario.
- Bete beharreko lanpostuaren eginkizunetan espezialista den edozein administratzaile A1 edo A2 azpitaldeetako teknikari funtzionario.

— Idazkaria:

- Ermuko Udaleko teknikari funtzionario bat.

Epaimahaiak kide anitzeko organoen inguruan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legean biltzen diren xedapenei jarraituta jardungo du.

Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoren izen zerrenda alkatetza-dekretu bidez onartuko da eta udalaren web orrian (www.ermua.es) eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, onartutakoaren eta baztertutakoaren behin betiko zerrendarekin batera.

Epaimahaiak aholkulari espezialistak ere lanetara batzea erabaki ahalko du, hautaketa-prozesuko proba guztietarako edo batzuetarako. Adituok berenespezialitate tekniko gauzatzera mugatuko dira, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoari buruzkoak, 31.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Epaimahaikideak beraiek dira deialdiaren oinarriak betetzearen eta ezarritako epeetara lotzearen erantzuleak. Deialdi honen oinarrien aplikazioa interpretatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak epaimahaiak ebatziko ditu; gehiengoaz, eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin behar dena ere erabakiko du.

Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 23. Artikuluan xedatutako inguruabarretako batean dauden epaimahaikideek ezingo dute esku hartu eta alkate-udalburuari jakinarazi beharko diote.

Lege horren beraren 24. artikuluekin bat etorritik, hautagaiek epaimahaikideak errefusatu ahalko dituzte aurreko artikuluan xedatutako kausa bat azaltzen denean.

Epaimahaia ezingo da osatu eta ezingo du jardun baldin eta, gutxienez, lehendakaria eta idazkaria, edo horiek ordezkatzeko dituzten pertsonak, eta kideen erdia gutxienez ez badaude. Zenbaketatik kanpo geratzen da idazkari diharduena.

Epaimahaikide guztiek hitza eta botoa edukiko dituzte, idazkariak izan ezik; horrek hitza edukiko du, baina botorik ez.



Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengoaz hartuko dira, eta, berdinketa egonez gero, presidente diharduenak ebartziko du.

Dialdi hau behar bezala garatze aldera, epaimahaiak oinarri hauetan aurreikusten ez diren gaien inguruan erabakiak hartzeko ahalmena izango du.

Epaimahaiak hautagaiek hautaketa- prozesuaren barruan beren espedientearen berri izateko duten eskubidea bermatuko du.

Epaimahaiak konfidentzialtasuna bermatzeko behar diren neurriak hartuko ditu. Zuzenketa azterketa egiten dutenen anonimotasuna zaintzen saiatuz egingo da, ahozko probetan, irakurketa publikoa duten idatzizko probetan edo gauzatze praktiketan izan ezik.

Epaimahaiaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal da Ermuko Udaleko alkate-udalburuaren aurrean. Hilabeteko epea izango da horretarako, iragarri-taulan argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatuta.

Jakinarazpenak: urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoaren ondorioetarako, hautaketa-prozeduratik eratoritzen diren administrazio-egintzak udalaren web orriari argitaratuko dira. Horrek jakinarazpena ordeztuko du eta ondorio berak izango ditu.

Zazpigarrena. — Merezimenduen alegazioa, egiaztapena eta balioespena

Oposizio-aldian onartutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratzen denean, 10 egun balioduneko epea ezarriko da lehiaketa-aldian balioetsi beharreko merezimenduak egiaztatzeko. Ez da balioetsiko parte hartzeko eskaeran behar bezala alegatu ez den eta agiriak aurkezteko ezarritako epean egiaztatu ez den merezimendurik.

Epaimahaiak bederatzigarren oinarrian ezarritako baremoaren arabera balioetsiko ditu merezimenduak.

Alegatzen diren merezimenduak edukitzeko erreferentziako data deialdiaren oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu diren eguna izango da.

Merezimenduak honela justifikatuko dira:

- a) Herri administrazioetan emandako zerbitzuak organo eskudunak igorritako ziurtapenaren bidez egiaztatu beharko dira. Honako hauek zehaztu beharko dira: enplegu harremana, betetako lanpostuaren izena, haren talde edo kategoria profesionala, enplegu harremanaren iraupena, dedikazio ehunekoa eta egindako zereginak.
- b) Hautaketa prozesu honetan parte hartzeko betekizun izan den tituluaz aparte aurkeztutako beste titulu akademiko ofizialak egiaztatzeko, tituluaren fotokopia konpultsatua edo hori igortzeko tasen ordainagiriarena aurkeztuko da.
- c) Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak egiaztatzeko, ikastaroa eman duen erakunde ofizialak igorritako ziurtapena edo lortutako tituluaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da. Bietan, datu hauek agertu beharko dira nahitaez: erakunde antolatzailearen izena, ikastaroaren izena, iraun duen eskola-orduak eta prestakuntza-programa.
- d) Euskeraren derrigortasun-data oinarri hauek argitaratu eta geroagokoa denez, euskara merezimendu bat izango da, eta merezimendu horretan baloratuko dira deialdiaren oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu arte egiaztatutako hizkuntza-eskakizunak.
- e) Artikuluko e) idatz-zatia betez. 190/2004 Dekretuko 7. Plaza bakoitza berezia denez, hautagai bakarria hautatuko da plaza bakoitzerako.

Zortzigarrena. — Oposizio-aldia

Deialdi honetako ariketa guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofiziale-tan egin ahal da.



Hautagaiek nortasun agiri nazionala, pasaporte edo gidabaimena eraman beharko dute hautaketa probetara. Epaimahaiak edozein unetan eskatu ahal izango die agiri horiek erakusteko.

Lehen ariketa egiteko data udalaren webgunean (www.ermua.es) eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, epaimahai kalifikatzailearen osaerarekin eta onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrendarekin batera.

Hurrengo probei buruzko informazioa udalaren web orrian (www.ermua.es) argitaratuko da, gutxienez 72 orduko aurrerapenarekin. Aurreko zenbakian ezarritakoa gora-behera, epaimahai kalifikatzaileak ebatzi ahalko du, beharrezko publizitatea emanda, probak oinarrietan ezarritakoaz bestelako hurrenkera batean egitea edo egun berean eta aldi berean proba bat baino gehiago egitea. Azken kasu horretan, aurreko nahitaezko probak gainditu dituzten probak soilik zuzenduko dira.

Probak egitera onartutakoen behin betiko zerrendan dauden hautagaiak joan ahaliko dira, baita zerrendan ez dauden eta horren aurka berraztertze errekurtsoa jarri dutenak ere, errekurtsoa ebazteke badago; horretarako, berraztertze errekurtsoaren idatzia, behar bezala zigilatua, aurkeztu beharko dute Ermuko Udalaren Sarrera Erregistroan.

Hautagaiei deialdi bakarra egingo zaie ariketak egiteko. Deitzen zaienean ariketa batera aurkezten ez badira, kasuan kasuko ariketan eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea galduko dute automatikoki eta, hortaz, hautaketa-prozeduratik kanpo geratuko dira.

Oposizio-aldiak 2 ariketa ditu:

a) *Lehen ariketa (nahitaezkoa eta baztertzaileak)*

Froga horrek bi zati izango ditu, eta idatziz erantzutean datza, auzitegiak horri buruz zehaztutako epean.

1. zatia: 5 galdera erantzungo dira, II. eranskinean adierazitako gai-zerrendako edukiei buruzkoak, eta 10 puntu emango dira. 1. fase hori gainditzeko, gutxienez 5 puntu lortu beharko dira. Lortzen ez badira, ez da bigarren zatia zuzenduko, eta ez-gaitzat joko dira.

2. zatian: Epaimahaiak zehaztutako test erako 50 galdera-sortako galdetegi bat idatziz erantzutean datza. Galdera-sorta horietako 40 baino ez dira ebaluagarriak izango, eta beste 10, berriz, erreserbakoak. Erantzun horietako bat baino ez da zuzena izango, eta I. eranskinean jasotako gaitan oinarrituko da, epaimahaiak proba hasi baino lehen ezartzen duen gehieneko epean. Azken 10 galderak erreserbako galderatzat hartzen dira, eta lehenengo 40 galderetako bat baliogabetzen bada soilik hartuko dira kontuan.

Zati hori 0 eta 40 puntu artekoa izango da.

Erantzun gabeko galderek eta erantzun bikoitzek ez dute zigorrik izango.

20 puntu lortzen ez dituzten izangaiak ez dira gai...

Ariketa honetan, bi zatien baturan gutxienez 25 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak kanporatu egingo dira.

b) *Bigarren ariketa (nahitaezkoa eta baztertze-indarrekoa).*

«Ermuko udalerrian inplementatzeko izaera sozialeko zeharkako estrategia komunitario baten garapena» izeneko proiektua auzitegian defendatu eta garatzean datza.

Aipatutako proiektua eskabidea aurkeztu eta 20 egunen buruan, gehienez, aurkeztu beharko da.

Proiektua gutunazal itxi batean aurkeztuko da, ondorengo zehaztapenei jarraituz:

- Gehienez: 10 orri, alde batetik idatzita.
- Letra: Arial.
- Tamaina: 12.
- Lerroarte: 1,5.



Ariketa honen bidez 0tik 50 puntura arte lortu ahalko dira, eta 25 puntu eskuratu beharko dira, gutxienez, hurrengo ariketa egin ahal izateko. Puntu horiek lortzen ez dituzten izangaia Ez Gaitzat joko dira eta hautaketa-prozesutik kanpora geratuko dira.

Ariketa bakoitzaren kalifikazioak udalaren web orrian argitaratuko dira. Oposizio-aldi-ko proba bakoitza amaitutakoan, epaimahaiak horren behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu, ahalik eta lasterren, eta 10 egun balioduneko epea ezarriko du egokiak diren erreklamazioak formulatzeko. Epe hori amaitzen denean eta, egonez gero, aurkeztu diren erreklamazioak ebazten direnean, epaimahaiak probaren behin betiko emaitzak argitaratuko ditu.

Bederatzigarrena. — Lehiaketa-aldia

Lehiaketa aldiak ez du baztertze-indarrik edukiko eta ezingo da kontuan hartu oposizio-aldiko probak gainditzeko. Aitzitik, oposizio-aldia gainditzen duten hautagaientzat izango da.

Aldi horretan, eskabidean alegatutako merezimenduak, ondoren egiaztatuak izan direnak, aztertu eta balioetsiko dira, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu den eguna erreferentziazat hartuta. Horretarako, merezimendu bakoitzari baremo honen arabera dagozkion puntuak emango zaizkio:

Esperientzia:

- a) Herri-administrazioan Gizarte politiketako gisa emandako zerbitzuak emateagatik: 0,5 puntu hileko, gehienez ere 5 puntu.

Enpresa pribatuetan edo erakunde publikoentzat lan egiten duten enpresetan izandako esperientzia ez da baloratuko..

- b) Ermuko Udalean Gizarte politiketako teknikari gisa emandako zerbitzuengatik: 0,5 puntu hileko, eta gehienez 15 puntu.

Enpresa pribatuetan edo erakunde publikoentzat lan egiten duten enpresa pribatuetan izandako esperientzia ez da baloratuko

- c) Lanpostuaren eginkizunak eta erantzukizunak betetzeko baliagarritzat jotzen den prestakuntza espezifikoak: 10 puntu, gehienez.

Diplomaren edo bertaratze-ziurtagiriaren bidez behar bezala egiaztatutako prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak jasotzeagatik. Ikastaro horietan nahitaez agertu beharko dira iraupeneko eskola-orduak, baldin eta honako gai hauei buruzkoak badira:

- Estatistika, datuen ustiapena eta analisia.
- Komunikazio-gaitasunak.
- Hautzaroaren parte-hartzea garapen komunitarioan.
- Lidergoa.
- Hiri hezitzailea eta inklusioa.
- Talde-lana.
- Ikaskuntzarako gaitasunak.
- Bizitzeko trebetasunak.
- Hezkuntza-psikologia eta psikopedagogia.
- Ezagutzaren kudeaketa.
- Erakundearen balioak eta kudeaketa.
- Proiektuen kudeaketa.

Baloratuak izateko, ikastaroek 10 orduko iraupena izan behar dute gutxienez, eta 2014tik aurrera egin behar dira.

- 10 orduko ikastaro batengatik 0,10 puntu emango dira, eta aurrerantzean proportzioan puntuatuko dira. Ikastaro bakoitzeko gehienez 1,5 puntu emango dira.

Ez dira kontuan hartuko iraupena ordutan adierazten ez duten ikastaroak edo prestakuntza.



- d) Oinarri hauetako lehenengoan eskatzen diren titulazioen lanbide-adarrekoak izan behar duten masterrak eta doktoretzak edukitzeagatik, 5 puntu emango dira gehienez.
- Master ofizialeko titulua: puntu 1.
 - Doktore-titulua: 2 puntu.
- e) Euskara.
- Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 98. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 1.4,2.d) eta 31. artikuluetan ezarritakoaren babesean, C1 egiaztatzeagatik gehienez lor daitekeen puntuazioa gainerako hautaketa-prozesuari emandako puntuazio osoaren% 11 izango da.

Ez da balioetsiko deialdian parte hartzeko eta/edo kidego eta eskala horretan sartzeko ezinbesteko betekizuntzat eskatzen den ikastarorik.

Hamargarrena. — Epaimahaiaren proposamena

Hautagai bakoitzak lortutako azken kalifikazioa oposizio-aldiei dagozkien ariketetan lortu diren puntuazioen batura izango da (gainditu badituzte), eta horri lehiaketa-aldian lortutakoa gehituko zaio. Horrela aterako da amaierako kalifikazioa eta puntuazio ordena.

Berdinketa egonez gero, oposizio aldian kalifikazio altuena lortu duenaren alde egingo da eta, berdinketak irauten badu, herri-administrazioan emandako zerbitzuen atalean puntuazio altuena lortu duen hautagaiak irabaziko du.

Ariketen kalifikazioa eta merezimenduen balioespena amitzen direnean eta, egonez gero, erreklamazioak ebazten direnean, epaimahaiak oposizio-lehiaketa gainditu dutenen hautagaien izena argitaratuko du iragarki-taulan eta puntuazio altuena lortu duenaren aldeko izendapen proposamena egingo du.

Epaimahaiak alkate-udalburuari bidaliko dio akta, dagokion izendapen-proposamena egin dezan.

Akta horretan, oposizio-aldia gainditu duten eta iragarritako plaza kopuruaz gaine-koak diren hautagai guztiak agertuko dira, puntuazioaren hurrenkeran.

Epaimahaiak deialdia hutsik geratu dela adierazi ahalko du baldin eta pentsatzen badu ez dagoela egindako probetan behar besteko maila lortu duen hautagairik.

Hamaikagarrena. — Agirien aurkezpena eta izendapena

Proposaturiko hautagaiak hamar (10) egun balioduneko epean, onartutakoen behin betiko zerrenda udalaren web orrian argitaratzen den egunetik zenbatuta, deialdian eskatzen diren gaitasuna eta betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztuko ditu udalean.

Epe horren barruan agiriak aurkezten ez dituzten hautagaiek (ezinbesteko kasuetan izan ezik) edo dokumentazioaren arabera deialdian eskatzen den betekizunen bat betetzen ez dutenak ezin izango dira izendatu, eta bertan behera geratuko dira haien inguruan egindako jarduketa guztiak; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izango parte hartzeko eskaeran faltsukeria egiteagatik erantzukizuna eskatzeko.

Aurrean azaldutakoa gertatuz gero, oposizio-lehiaketa gainditu duen eta amaierako puntuazioaren arabera hurrengo lekuan dagoen hautagaia izendatzeko proposamena egingo da, eskatutako baldintzak eta betekizunak betetzen dituela frogatu ostean.

Hamabigarrena. — Lan-poltsa

Hautaketa-prozesua amaitutakoan, oposizio aldia gainditu duten eta funtzionario izendatu ez diren hautagaiekin lan-poltsa bat eratuko lortutako puntuazioaren hurrenkeraren arabera. Lan-poltsa Ermuko Udalean eta behar duen edozein administrazioan sor litezkeen aldi baterako beharrei erantzuteko erabiliko da, osatzen dutenek datuak



lagatzeko baimena eman ostean; horretarako, prozesua amaitzean sinatu beharko dute baimena, hala badagokio.

Hau izango da plazak esleitzeko prozedura:

Berdinketa egonez gero, oposizio aldian kalifikazio altuena lortu duenaren alde egingo da eta, berdinketak irauten badu, herri administrazioan emandako zerbitzuen atalean puntuazio altuena lortu duen hautagaiak irabaziko du.

Hamairugarrena. — Azken arauak

Interesdunek deialdi honetatik eta epaimahaiaren jarduketetatik eratortzen diren administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahalko dituzte, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak eta ekainaren 13ko 29/1988 Legeak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak, ezartzen dituzten kasuetan eta moduan.

Deialdi hau aurkaratu ahalko da Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren aurrean, bi hilabeteko epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 112 eta 114. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikuluan xedatuta dagoenarekin bat etorritz.

Dena den, hori baino lehen, nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da erabakia eman zuen organoaren aurrean, modu berean zenbatutako hilabeteke epean, lehen aipatutako urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123 eta 124 artikuluetan ezarritako moduan, Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa hain zuzen ere.

Hamalagarrena. — Gorabeherak

Sortzen diren zalantzak argitzeko eta oposizioa ondo garatzeko behar diren erabakiak hartzeko ahalmena dauka epaimahaiak, oinarri hauetan aurreikusi ez direnetarako.

Ermuan, 2021eko apirilaren 13an. — Alkatea, Juan Carlos Abascal Candás

**I. ERANSKINA**

1. Espainiarren funtsezko eskubide eta betebeharrak. Horiek bermatzea eta etetea.
2. Herri-administrazioak espainiar antolamenduan. Estatuaren administrazio orokorra.
3. Autonomia erkidegoak: Autonomi estatutuak. Toki-administrazioa. Erakunde- administrazioa.
4. Administrazio-prozedura: oinarri orokorrak. Administrazio-prozeduraren aldiak: hasiera, antolamendua, instrukzioa eta amaiera. Administrazioaren isiltasuna.
5. Administrazio prozedura erkidearen izapidegintza erraztua.
6. Prozeduraren denborak eta epeak. Prozedura bereziak.
7. Administrazio-egintza: kontzeptua, motak eta osagaiak. Zergatia, jakinaraztea eta argitaratzea.
8. Administrazio-egintzen eraginkortasuna: bete beharrekotasuna eta nahitaez be-tearaztea. Etendura. Administrazio-egintzaren baliozkotasuna eta baliogabezia. Balioki-detza, kontserbazioa eta bihurketa.
9. Administrazio-egintzak berrikustea. Ofizioz berrikustea. Administrazio-errekur-soak: oinarri orokorrak.
10. Gora jotzeko errekurtsua. Aukerako berraztertze-errekurtsua, aparteko berriku-spen-errekurtsua. Errekurtsu ekonomiko-administratiboa.
11. Administrazio-egintzen jurisdikzio-berrikuspena. Administrazioarekiko auzi-erre-kurtsua.
12. Espainiako toki-araubidea: Konstituzioaren oinarriak eta arauketa juridikoa.
13. Udalerrria: kontzeptua eta osagaiak. Udal mugartea. Biztanleria: erroldatzean arreta berezia jarritz.
14. Udalaren antolamendua. Eskumenak.
15. Toki-hauteskudeen araubide orokorra.
16. Ordenantzak, erregelamenduak eta bandoak. Horiek lantzeko eta onesteko pro-zedura. Arau-hausteak.
17. Toki-erakundeen zerbitzuko langileak: funtzionarioak, lan-itunpeko langileak, aldi baterako langileak eta zuzendari profesionalak.
18. Toki-erakundeetako langileen araubide juridikoa: eskubideak eta betebeharrak. Diziiplina-araubidea.
19. Administrazio-egoerak. Bateriaezintasunak.
20. Toki-administrazio prozeduraren berezitasunak.
21. Dokumentuen irteerak eta sarrerak erregistratzea. Dokumentuak aurkeztean bete beharrekoak. Komunikazioak eta jakinarazpenak.
22. Kide anitzeko toki-organoen funtzionamendua: bilkura eta erabakien araubidea. Aktak eta erabakien ziurtapenak.
23. Udalburuaren ebazpenak.
24. Toki-erakundeetako aurrekontuak. Oinarriak, osagaiak eta biltzen dituzten doku-mentuak.
25. Toki-aurrekontua onesteko prozedura. Aurrekontua betetzeko oinarri orokorrak.
26. Aurrekontuaren aldaketak: ohizkanpoko kredituak eta kreditu gehigarriak, kredi-tu-transferentziak eta halako beste irudi batzuk.
27. Aurrekontuaren likidazioa.
28. Tokiko gastu publikoa: kontzeptua eta lege-araubidea.
29. Gastu publikoak egikaritzea. Kontabilitatea eta kontuak.
30. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdinta-sun Eragingarriakoa. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeria-ren aurka Guztiz Babesteko Neurriak ematen dituenak.



31. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa.
32. 15/1999 Lege Organikoaren Garapenerako Araudia, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa.
33. Administrazio elektronikoa: hiritarrek zerbitzu publikoak elektronikoki eskuratzea.
34. Egoitza elektronikoa. Identifikazioa eta autentifikazioa.
35. Erregistro, komunikazio eta jakinarazpen elektronikoak.
36. Prozeduren kudeaketa elektronikoa.
37. Euskadiko Autonomia-Estatutua: aurretiazko titulua, Euskadiko botereak.
38. Euskadiko Toki-erakundeei buruzko Legea: IV. Titulua: I. Kapitulua. Udalerrriaren antolaketa eta funtzionamendua.
39. Euskadiko Toki-erakundeei buruzko Legea: IV. Titulua: II. Kapitulua. Udal ordezkarien estatutuari buruzko xedapenak.
40. Ermuko udal antolaketa: udalak ematen dituen zerbitzuak eta Ermuko Udalaren menpeko erakunde autonomiadunak.
41. Administrazio Publikoaren jarduteko printzipioak.
42. Harreman juridiko-administratiboa; kontzeptua.
43. Harreman juridiko-administratiboaren subjektuak.
44. Administrazioa eta administratua, harreman juridiko-administratiboan.
45. Gaitasuna eta ordezkaritza harreman juridiko-administratiboan.
46. Administratuaren eskubideak. Administratuaren egintza juridikoak.

**II. ERANSKINA**

47. 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuen Eus-
kal Sistema antolatzea (II. kapitulua). Kontsulta- eta partaidetza-organoak (III. kapitulua).

48. Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Lanbide Heziketa antolatzea eta ezar-
tzea. 86/2015 Dekretua, ekainaren 9koa.

49. ODS 2030 agenda.

50. EAEko esparru juridikoa haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko: 3/2005
Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko (III. kapitulua).

51. EAEko esparru juridikoa haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko: 3/2005
Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko (IV. kapitulua).

52. Esparru teorikoa eta jarduera-ildoak. La città dei Bambini.

53. 10/2000 Legea, abenduaren 27koa, Gizarte Eskubideen Agiriarena.

54. Arrisku- eta desanparo-egoerak: definizioa eta larritasun-mailak, EAEko haurrak
eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan
arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna baloratzeko tresna eguneratzen duen maia-
tzaren 9ko 152/2017 Dekretuaren arabera (Balora).

55. Haur eta nerabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta abusu posi-
bleak gertatzen direnean hezkuntza-testuinguruan egin beharreko prebentzio-jarduke-
tak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren prebentzio-protokoloaren arabera.

56. Kontzeptu- eta arau-esparrua, diagnostikoa, printzipioak eta gizarteratzeko jar-
duera-esparruak (Gizarteratzeko IV. Euskal Plana 2017-2021, 4. kapitulua).

57. Kontzeptu- eta arau-esparrua, diagnostikoa, printzipioak eta gizarteratzeko jar-
duera-esparruak (Gizarteratzeko IV. Euskal Plana 2017-2021, 5. kapitulua).

58. Haurtzaroaren lagun diren udalerrriak. Helburuak eta prozedurak.

59. 2019-2022 aldirako Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Sarearen esparruan lehenta-
sunezko ekintzak ezartzeko ildoak eta estrategiak.

60. Hiri Hezitzaileen gutuna.

Gaiak prestatzeko, indarreko legeriatzat edukiko da deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizia-
lean argitaratzean indarrean dagoena.

I. eranskineko gai-zerrenda prestatzeko erreferentziak:

a) META argitaletxea.

b) MAD argitaletxea.